



IRIZPEN ZK.: D20-019

IRIZPENA, UDALAREN OSOKO BILKURAREN BILERETAN EGON DIRENEK BILEREN AUDIO-GRABAZIOETARA IRISPIDEA IZATEARI BURUZKOA

AURREKARIAK

LEHENENGO: Udaleko alkateak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

«Administrazio honek webgunera igotzen ditu osoko bilkuraren bileren aktak (ez grabazioa), onartu ostean. Azken aldian, osok bilkuraren bilera batean egindako bi pertsonak udalari eskatu diote haiek egon ziren bileraren audio-grabazio osoa.

Irizpena eskatzen da, grabazio hori eman behar zaien ala ez ebazteko. Aztergai den akta oraindik ez da onartu; hala ere jakin nahi da, ea onartuta egonda ere, grabazioa ematea bidezkoa den, ala udalak osoko bilkuren aktak argitaratuz gardentasuna betetzen duen».

BIGARREN: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetzen zaio ea udalak osoko bilkuraren bilera batean egon direnei nahitaez eman behar dien bilera horren audio-grabazio osoa, hala eskatuz gero, eta horrez gain, ea onartuta dauden osoko bilkuren aktak besterik gabe argitaratuz udalak gardentasuna betetzen duen.

Bulegoak erantzuna emango dio egindako kontsultari datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik (2/2004 Legearen 17.1 artikulua); dena dela, beste eskubide batzuk ere aztertu ahal dira, oinarrizko eskubide horrekin talka egin ahal dutenak —edo ez—

Hasteko, gogora ekarri behar dugu pertsonaren irudia eta ahotsa datu pertsonalak direla, eta hala xedatzen du 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 4.1 artikulua —Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari



buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Aurrerantzean Erregelamendu Orokorra)—:

«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2020ko ekainaren 22 epaian (2032/2020 epaia) ahotsa datu pertsonaltzat jotzen da. Honako hau dio epai horrek:

«Planteatzen den kasazio-arazoa da ea zein baldintzatan edo zenbateraino jo behar den pertsona baten ahotsa datu pertsonaltzat; bada, arazo hori ebazteko, Sala honen iritziz zuzenbidearekin bat datoz auzialdiko auzitegiak darabiltzan arrazoiak. Auzitegi horrek dioenez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia oinarri hartuta, pertsona baten soinu erregistroa da ahotsa, eta pertsona horri buruzko informazioa ematen du; beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoaren 2.3 a) artikulua "izaera pertsonaleko datuei" buruz ematen duen definizioan sartzen da.

Hain zuzen ere, jurisdikzio-sala honen 2020ko ekainaren 18ko epaian azaldu dugunez, errekurtsua aurkeztu duen merkataritza-etxearen abokatu-defentsak azalduetako tesiak ezin du aurrera egin:

Lehenengo arrazoiarekin gertatzen den bezala, auzi-jartzaileak ez du behar bezala interpretatzen legezko xedapenaren norainokoa. Aldarrikatzen dituen manuetan datu pertsonaltzat jotzen dira soilik identifikatuta dauden datuak edo identifikatu ahal direnak. Hala, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren (15/1999 Legea) 3.a) artikulua ezartzen zuenez, izaera pertsonaleko datua da "identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoen gaineko edozein informazio". Erregelamenduaren 5. artikulua (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua), zeinak hainbat terminoren definizioak biltzen baititu, halakoak aplikatze aldera, 1.f) apartatuan datu pertsonalak definitzen ditu: "pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarriei buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa)".

Kasu honi aplikatu behar zaion araudi hori gaur egun indarrean dagoen araudian jasota dago antzeko hitzekin. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa), ordenamendu nazionalera abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren bidez ekarri den horrek, 26. paragrafoan honako hau ezartzen du:

“(26) Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazio guztiari aplikatu behar zaizkio datuen babesaren printzipioak. Datu pertsonal seudonimizatuak, informazio gehigarria erabiliz pertsona fisiko bati egotz baitakizkioke, pertsona fisiko identifikagarri bati buruzko informaziotzat jo behar dira. Pertsona fisiko bat identifikagarria den zehazteko, kontuan hartu behar dira tratamenduaren arduradunak edo beste edozeinek pertsona fisiko hori zuzenean edo zeharka identifikatzeko erabil ditzakeen baliabide guztiak, hala nola singularizazioa. Pertsona fisiko bat identifikatzeko baliabideak erabiltzeko arrazoizko probabilitaterik dagoen zehazteko, faktore objektibo guztiak hartu behar dira kontuan, hala nola identifikatzeko beharko



liratekeen kostuak eta denbora, kontuan hartuta tratamenduaren unean eskuragarri dagoen teknologia zein teknologiaren aurrerapena. Horrenbestez, datuen babesaren printzipioak ez dira erabiliko informazio anonimoarekin, hau da, pertsona identifikatu edo identifikagarri batekin loturarik ez duenarekin, ezta interesduna identifikagarria ez izateko edo identifikagarri izateari uzteko moduan anonimo bihurtu diren datuei. Ondorioz, erregelamendu honek ez dio eragiten informazio anonimo horren tratamenduari, ezta estatistika edo ikerketa helburuetarako badira ere".»

Bestalde, pertsona baten ahotsa atzitzea datuen tratamendua da, eta tratamendua honela definitzen da Erregelamendu Orokorraren 4.2) artikuluan: «*datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea*».

Datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik, datuetara irispidea izateko eskubidea Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 13. artikuluan arautzen da, eta irispidea izateko eskubide hori titularraren datu pertsonalen gainean soil-soilik egikaritu behar da.

Horren haritik, bileretan egon direnek beren datu pertsonaletara, udalaren osoko bilkuraren bileren audio-atzipen edo -grabaketaren bidez tratatu diren horietara irispidea izateko eskubidea egikaritu ahalko dute, baina ez dute irispiderik izango hirugarrenen datu pertsonaletara.

Baina, antza denez, kontsultan planteatzen da ea bertaratutakoek informazio publikora irispidea izateko eskubidea duten azaldutako baldintzetan, baita ea udalak osoko bilkuren aktak bai baina audio-grabazioak ez argitaratuz gardentasuna betetzen duen ala ez ere;

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea nahiz publikotasun aktiboa abenduaren 9ko 19/2013 Legean, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoan eta apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan arautzen dira.

Eta kasu honetan, gardentasuna kontrolatzeaz arduratzen den organoa ez da Bulego hau, baizik eta Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea (apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 65. artikulua; irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoaren 1. artikulua eta hurrengoak).

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen mugak 19/2013 Legearen 14. artikuluan ezartzen dira; gainera, eskubide horrek datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea errespetatu behar du, Lege horren 15. artikulua ezartzen duenez. Artikulu horrek honako hau dio hitzez hitz:

«15. artikulua. Datu pertsonalak babestea.

1. Eskatutako informazioak ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio edo sinesmenen berri ematen duten datu pertsonalak baditu, informazio hori eskuratzeko baimendu ahalko da ukitutako pertsonaren berariazko baimen idatzia izanez gero, salbu eta pertsona horrek nabarmen eman baditu aditzera datuok beroiek eskuratzeko eskatu baino lehen.



Informazioak arrazari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datu pertsonalak baditu, edo datu genetiko edo biometrikoak, edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da ukituaren berriazko adostasuna edukitzea edo lege-mailako arauen baten babesa izatea.

2. Oro har, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interes publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaiolako.

3. Eskatutako informazioak ez duenean datu bereziki babesturik, eskaera jaso duen organoak informazioa eskuratzeko baimenduko du, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta.

Erabaki hori hartzeko, organoak bereziki kontuan hartuko ditu irizpide hauek:

a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikulua ezarritako epeak igarotzeak eragindakoei ahalik eta kalte txikiena eragitea.

b) Eskatzaileek justifikatzea beren eskaera eskubide batez baliatuta egiten dutela edo ikerlariak direla eta informazioa helburu historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela.

c) Eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena egitea, dokumentuetan haiek identifikatzeko datuak bakarrik badaude.

d) Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adingabekoei buruzkoak badira.

4. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

5. Datu pertsonalak babesteko araudia aplikatu beharko zaio informazioa eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutako datuen tratamenduari».

Halaber, nabarmendu behar da 19/2013 Legearen 19.3 artikulua honako hau ezartzen duela: «Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, eta behar bezala identifikatuta badaude, hamabost eguneko epea emango zaie nahi dituzten alegazioak egiteko. Eskaera-egileari horren berri eman beharko zaio, eta, era berean, jakinaraziko zaio ebazpena emateko epea eten egiten dela harik eta alegazioak hartzen diren arte edo alegazioak aurkezteko epea igarotzen den arte».

II

Kontsultak planteatzen duenaz guztiz bestelako auzi bat da jakitea ea udalaren osoko bilkuraren bileren audioa osorik atzitzea edo grabatzea eta gerora komunikatzea, lagatzea edo zabaltzea, datu pertsonalen tratamendua den aldetik, legez babestu ahal den Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan aldarrikatzen den zilegitasun-printzipioaren arabera. Printzipio hori betetze aldera, halako tratamenduek Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan jasotako honako oinarri juridikoetako baten babesa beharko dute:



adostasuna, kontratua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea, interes legitimoa edo ukituaren berebiziko interesa.

Toki korporazio orokorretako osoko bilkurak publikoak izan behar direla agintzen du Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 70.1 artikulua, berariaz dioelako toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak direla.

«70. artikulua.

1. Toki erakundeetako osoko bilkurak publikoak izan ohi dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan, aipatutako herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.

Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak».

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 30. artikuluan bileren publikotasunaren araubidea osatzen du udalen eremuan. Artikulu horrek honako hau xedatzen du:

«30. artikulua.– Bilkuren publizitatea.

1.– Udalaren osoko bilkurak publikoak dira.

2.– Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak publikoak izango dira, salbu eta kontrakoa ezartzen badu osoko bilkurak, bere kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, edo ordenamendu juridikoak. Aurreko hori gorabehera, edozein kasutan publikoak izango dira gobernu-batzarraren bilkurak, beti ere errespetatuz herritarrek ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarerako eta irudi pertsonalerako duten oinarrizko eskubidea, noiz eta organo horrek jarduten duenean osoko bilkurak eskuordetutako ahalmenak baliatuz, edo tokiko gobernu-batzarraren lehendakariak baimentzen duenean, gai jakin batean, gai hori hobeto ebazteko lagungarriak izan daitezkeen pertsonen presentzia edo parte-hartzea.

3.– Organo osagarrien bilkurak –batez ere osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertzeko, haien gainean irizpena egiteko edo haietaz aholkua emateko, eta orobat gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egiteko diren organoenak– publikoak izan ahalko dira, hala erabakitzen badu erakundearen osoko bilkurak bere legezko kideen gehiengo osoaren erabakiz, edo hala aurreikusten bada udalaren erregelamendu organikoan.

4.– Eztabaidak eta bozketak sekretuak izan ahalko dira Konstituzioaren 18.1 artikuluaaren oinarrizko eskubidean eragina eduki dezaketen gaiei buruzkoak direnean, betiere erakundearen osoko bilkurak egitatezko kideen gehiengo osoz hala erabakitzen badu. Dena dela, osoko bilkura batean irudia edo soinua grabatzen bada eta grabazio horietan ohoreari, intimitate pertsonal edo familiarari edo irudi pertsonalari dagokion eskubidean eragina izan dezaketen gaiak tratatzen badira, gai horiek tratatzen diren bitartean grabazioa eteteko aginduko du lehendakariak, bere ekimenez edo edozein udal-talde politikok proposatuta, herritarren oinarrizko eskubideak eta datu pertsonalak babesteko legeria betetze aldera.

5.– Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, artikulu honetan aipatzen den bilkuren informazioa eta publizitate-araubidea bitarteko eta formatu eskuragarrien bidez emango da.



6.– *Toki-erakundeen bilkura publikoetan, herritarrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, eta ezingo zaie exijitu hitz egiteko aukeratu ez duten hizkuntzan itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik».*

Aztertzen ari garen kasuaren antzekoak diren beste batzuetan ere adierazi dugunez, esan behar dugu osoko bilkurak grabatzeko eta grabazioen zabalkunderako adostasuna eskatu behar izatetik salbuesten duen lege-gaikuntza egon dagoen arren bai TAOLean bai ETELean, gure ustez, salbuespenak bakarrik balio beharko lukeela osoko bilkuretako edo unean uneko batzordeko kideentzat, eta ez bertan parte hartzen duten beste pertsonentzat. Valero eta Fernández Salmerón irakasleek diotenez, bilkuren publikotasuna *"tokiko administrazioak duen izaera demokratikoaren eta ordezkaritza izaeraren ondorio kualifikatua"* da, eta ordezkaritza-organo horietako kideak behartuta daude euren buruen irudiaren eta ahotsaren tratamendua onartzera, adostasunik adierazi gabe. Baina, kontrara, ahalegina egin beharko da gonbidatuen edo parte-hartzaileen irudirik edo ahotsik ez grabatzeko.

Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak hainbat irizpen eman ditu horri buruz. Agintaritza horren iritziz, «udalaren osoko bilkuraren bileretan irudia eta ahotsa atzitu dira, baita gerora zabalduko ere, soil-soilik publikoak diren bileretan edo bileren zatietan, eta horretarako, datuak babesteko araudiaren printzipio eta bermeak bete beharko dira; hala, herritarrei informazioa emango zaie osoko bilkuran eztabaidatzen diren gaiei buruz, baina horrek ez du esan nahi bertaratutakoen datu pertsonalak babesteko eskubidea edo osoko bilkuraren bileretako eztabaidetan ager daitekeen informazioak ukitutakoen datu pertsonalak babesteko eskubidea bidegabeki urratu behar denik». (CNS 40/2009, CNS 32/2012, CNS 44/2015, eta CNS 54/2015).

Beraz, korporazioak erabiltzen badu, herritarren ohorea eta intimitatea babesteko asmoz, eztabaida eta bozketa sekretuak izatea ahalbideratzen duen ahala, halakoetan osoko bilkurak grabatzeko gaikuntzak ez du balioko.

Horrez gain, grabazio bidez irudiak hartuz egiten den datu tratamenduak bete egin beharko du Erregelamendu Orokorraren 5.1a) artikulua xedatutako gardentasunaren printzipioa. Beraz, nahitaez eman behar zaie tratamenduaren gaineko informazioa bertaratzen direnei.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 23a